

Bi ikertzaile nafar Euskal Herriari adi: J. M. Jimeno Jurío eta J. M. Satrustegi*

Hilabete gutxitan (2002-azaroa/2003-martxoa) obra zabaleko bi ikertzaile galdu ditu Nafarroak: José María Jimeno Jurío eta Jose Mari Satrustegi Zubeldia. Hura gaxorik zegoen aspalditxotik, Satrustegi kasik bat-batean joan zaigu.

Bizitzak ez ezik heriotzak ere elkartuta eraman ditu biak; baieztapen honek frogarik behar balu, horra Euskaltzaindiaren martxoko bilera-deialdiak bere egitarauan zer zioen: “José María Jimeno Jurío. Euskaltzain ohorezkoa. (Artaxoa, 1927-2002). Omenezko txostena, José María Satrustegi euskaltzainak egina”. Adiskideari prestatuturiko txostena ezin izan zuen irakurri adiskideak, bilera-arratsaldean Satrustegi jaunaren hiletak ospatu behar izan baikenituen Arruazun.

Horrela galdu ditugu Nafarroako euskara, kultura eta herritasunaren lekuko leinargi bi, hainbat langai bildu eta aztertu digutenak, langile asperrezinak. Lerro hauen bidez haien lana eta emana gogorarazi nahi dizkiogu irakurleari¹.

*Hilondoko oroit-idazlan hau *Hermes* aldizkarirako idatzia da lehenik: “J. M. Jimeno Jurío eta J. M. Satrustegi: Euskal Herriko bi nafar ahalegin bat berean” (Bilbo: Sabino Arana Fundazioa, 2003). Aldizkari horren baimenarekin jasotzen dugu hemen, izenburua aldatuz eta zenbait ukitu tarte direla. Dena den, testua kasik bere hartan dator.

1. *Iturriak*. Lan honetarako erabilitako iturriak bizpahiru gisatakoak izan dira: a) Lehendik argitaratutako emanak, b) Internet-en bidez lor zitezkeenak, eta c) Familiartekoen lekukotasunak. Lehenengoan artean dago Jimeno Jurío-ri buruzkoa: Jimeno Aranguren, R. (1998): *José María Jimeno Jurío. Manuel Lekuona Saria*. Donostia: Eusko Ikaskuntza. Jimeno-ren kasuan, oinarritzko argibide guztiak hor daude, bio-bibliografia oso batekin, eta falta zirenak Jimeno Aranguren berak (hilberriaren semeak) osatu dizkit. Eskerrak, bada, erraztasun horregatik. Satrustegi Zubeldiaz, ordea, ez dago horrelakorik argitaratuta emanda, eta kasu honetan Internet-era eta Euskal Herriko liburutegietan jo behar izan dut, batez ere Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara (Josune Olabarria andrea) eta Sancho el Sabio Fundazioko Liburutegira (Carmen Gómez andrea), ahal zena saretik jasoz eta bestelakoa harremantzen bidez osatuz. Xehetasun pertsonal batzuetarako Euskaltzaindiko Amaia Okariz eta Gema Insausti ere tartean izan ditut, laguntzen. Azkenik, Satrustegi-ren familiartean ere jaso dut albisterik (Pilar Satrustegi arreba eta Marivi Betelu iloba). Denei nire esker beroa, hori guztia gabe ezingo bainuen burutu albiste biografiko hau. Internet-en begira bidez: Azkue Bibliotekako katalogoa (www.euskaltzaindia.net), Sancho el Sabio Fundaziokoa (www.fsancho-sabio.es) eta UEU-ren zerbitzua gogoan hartzekoa da, euskal lan zientifiko guztiak bildu nahi dituelako (www.inguma.org). Beste bibliografiarik ere egon da tartean, baina oraingoan bego horretan adierazi beharreko hau.

Bizitzako zertzeladak


Biak nafarrak genituen, sortzez: Jimeno Jurío Artaxoan jaio zitzaigun, Nafarroako Erdialdean; Satrustegi, ostera, Arruazun, Mendialdeko Sakanan. Urtez ez zuten alde handirik, lehena 1927an jaioa; bestea, 1930ekoa. Gerra Zibila lehertzerako ume koskorturik ziren biak ere, baina artean apenas bizitzari ohartuki begirutzen hasteko lain.

Gerraoste hertsian egin ziren gizon Jimeno eta Satrustegi (1940-1960), eta garai berean beren bizitzetako obra burutzeko prestatu, jakitatez ez ezik borondatez eta adorez. Ondoko hamabost urteetan edo (1960-1975) ikaslanekin batera inguruko gizarteko aldakuntzek ere gidatu zituzten, gero bizitzako azken hogeita bost urteetan (1975-2002/3) utzi diguten kultur lana burutzeko.

JOSÉ MARÍA JIMENO JURÍO mutikoari Artaxoa sorterriak berak erakutsi zizkion Nafarroako gizartearen aurpegi ezberdinak: nekazal herri tradizionala, aldakuntza sozialen beharrea ageri zena; gaztetxo zela, lehertu zen Gerra Zibila, eta Artaxoatik arreta biziz entzun eta sufritu zituen mutikoak fronteko albisteak. Hamabi urte zituela, Mallorkako Lluc-en jarraitu zituen jaioterrian hasitako ikasketak. Handik itzultzean, Iruñean hasi zituen Magisteritzakoak, eta bertan Maisu titulua lortu (1947). Bizitza zibilerako prestatuta zegoen, bada, gure gizona: Noain (1947) eta Lergan (1947-1949) eman zioten lehenengoz maisu-lana.

Oposaketetarako paperak egiten ari zela, beste bide bat hartzea erabaki zuen, azkenik: 1950eko udazkenean Iruñeko Seminariora joan zen, apaizetarako prestatzeko asmoz. 1956an egin zen apaiz, hogeita hamar urte betetzera zihoala. Gotzainak Zangozara bidali zuen lehenik (1956-1958), eta Altsasuko Lanbide Institutura gero (1958-1960). Hilabete batzuk Uxuen emanda (1960), Bearin-a bidali zuten (1960-1963). Herri honetatik Lizarrako mundu kulturala ezagutzeko aukera izan zuen: Santiago-Bideko historiak eta istorioek eztenkatuta hasi zen bere lehen idazlanak argitaratzen (*Ruta Jacobea* eta *Príncipe de Viana* aldizkarietan). 1963az geroztik Asiain eta Artetan aurkituko dugu apaiz-lanetan.

1960etako hamarkada izan zen Jimeno Jurío ikerkuntza mundura iritsi zena, batez ere Artaxoari buruzko lehen idazlanekin. Geroxeago, Irantzuko *Libro Rubro* delakoa eman zuen argitara (1970), eta *Navarra. TCP* argitalpen-sailean lankidetzaz zabala eskaini. Bien bitartean, apaiz gaztea inguru sozial, kultural eta politikoa ere harreman hertsian zegoen, eta barnetik bide berrien baten bila. Horrela, ibilbide pertsonal isil baten ondoren, 1970ean sekularitu zen Jimeno



José Mª Jimeno Jurío

Jurío, eta Iruñean bizitzen jarri. 1972an ezkondu zen Elena Aranguren-ekin, eta 1973an jaio zen senar-emazteon seme bakarra, Roldán.

Harez gero, kultur jardunean emango zuen osorik bere bizitza, Nafarroari begira, Euskal Herriari so, kultur tradizioa arakatzuz (herrietako etnografia), gaurkotasun-eske-

Intxausti, Joseba: Bi ikertzaile nafar Euskal Herriari adi: J.M. Jimeno Jurío eta J.M. Satrustegi

ei ihardetsiz (Amaiur sinbolikoa, 1982) eta jakitearen alde kritikoa bizkortuz (Iruñeko historia, 1974). Batetik bestera, Nafarroa osoa zeharkatuko du orduan eta gero: "Jimeno Jurío es increíble. Nadie sabe cómo puede llegar a tanto rincón, a tanto papel antiguo, a tanta persona guardadora de consejas" (M. J. Urmeneta).

Frankismoaren azken urteetako egoera urduriak ere barrutik hunkitu zuen Jimeno Jurío, eta herritarren jakin-mina asetzen saiatuko da San Pedro auzoko Liburutegitik ez ezik (1970-1983), herrietan emango dituen hitzaldien bidez ere: Aro Garaikidea, Errepublika, Gerratea... Kazeta, aldizkari eta mintzalditako lanak ez du ateririk ezagutuko (1976...), betiere ikerlan zainduagoa ahantzi gabe.

1980-1990. etako bi hamarkadetan Nafarroako euskararen ahots galdua berreskuratzen ahalegindu zen, herrietako artxibategietan bezala (Agoitz, Zaraitzu, Galipentzu, etab.) Erreinu Zaharreko lur-lurrean (leku-izendegia). Lan erraldoia izango da hau, bere gisara egina eta/edo taldeetan landua, azkenik bere fruitu umotua emateraino (1997).

Urte bertsuetan, Erakunde eta Elkarteetan ere lanean aurkituko dugu Jimeno Jurío: Eusko Ikaskuntza berrituan, Euskaltzaindian, Medikuntza Historiako Euskal Lagunartean (1984), Instituto Gerónimo de Uztáriz-en (1985), Ateneo Navarro-n (1985). Bereziki, Nafarroako Gobernuarentzat (1990, 1992...) eta Euskaltzaindiarentzat (1986-1994) lan erraldoiak egin eta zuzendu ditu toponimia arloan. Hauek dira, zalantzarik gabe, lan ugariak eta emankorrenak utzi dituzten urteak.

Euskal gizarteak ezagutu du Jimeno Juríoaren lanaren balioa, eta garaiz eskertu dio egindakoa: Euskal Dantzarien Biltzarrak Ohorezko Lehendakari izendatu zuen, eta Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain (1991), Nafarroako Kultur Erakunde eta Elkarteek omenaldi herritarra egin zioten (1995), Sabin Arana Fundazioak "Bizitza osoko Lanari" Saria eman zion (1998), eta Eusko Ikaskuntzak, berriz, "Manuel Lekuona Saria" (1998). Oraindik hil aurretik Bizkaiko Ikastolen Elkarteak ohoratu zuen (2001), eta Lizarran "Manuel Irujo Saria" eman zitzaion (2001).

Hilabetetako osasun maskal-aldi baten ondoren, 2002ko urriaren 3an, utzi gaitu José María Jimeno Jurío, beste Jose Mari adiskideari aurrea hartuta.

JOSE MARI SATRUSTEGI ZUBELDIA, esan bezala, Arruazun jaio zen, eta artaxoarra baino hiru urte gazteagoa zen, 1930eko azaroaren 15ean sortua. Herriko lehen ikasketen ondoren, apaizetarako bidea hartu zuen Satrustegi gazteak eta Iruñeko Seminariora joan zen (1943); hemengo ikasketak burutzean, 1955ean apaiztu zen. Iruñeko Elizbarrutian ez dira anitz izan Satrustegiren bizitoki eta eliz zereginak, baina izendatutakoetan luzaro jardun du: Madotzeko Erretore (1955), Luzaideko Bikario (1955-1964) eta Urdiaingo Erretore (1964-1995). Azken herri honetan bete du, bada, bizialdirik luzeena (31 urte), eta bertan eta bertatik ikusi dugu, aldi berean apaizaren eliz zerbitzua eta ikertzailearen euskal lana betetzen, herrian bertan eta Euskal Herri osoan.

Satrustegi idazlea garaiz hasi zen bere luma-zeregina zaintzen, euskaraz eta erdaraz (1956); Euskaltzaindiak 1957an izendatu zuen urgazle, eta sei urteren buruan Euskaltzain oso,



Jose M^a Satrustegi Zubeldia

32 urte zituela (Luzaiden egin zuen sarrera-hitzaldia, 1963). Laster aitortu zitzaion, bada, bere kultur lekua euskal munduan; hamarkada berean, antzeko zerbait gertatu zen Nafarroan, bereziki 1969aren inguruan Foru Aldundiko kultur sailean.

Ordurako, Satrustegi sarri agertzen da hainbat kazeta herritar nahiz kultur aldizkaritan. Nafarroako hainbat herritan euskarazko irakaskuntzari leku ematen ahalegirik franko egin zuen hasierako hamarkada hartan. Azpimarratzekoa da, aipatu urte horretan, Nafarroako bi kultur aldizkari sortzean izan zuen eskua: *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* (lehenengoaren zuzendari izan da hil den arte). Literaturako ele ederra ere maite zuen: horrela, Iruñeko Udal Kutxaren Saria irabazi zuen 1972an *Ekaitza* eleberriarekin (Jakín, 1975).

Aldizkari horiekiko harremanaz gain, Euskaltzaindikoak izango dira hartuko dituen erakunde-ardurarik ezagunenak. Akademiako Idazkari (1978-1992), Nafarroako Ordezkaritza-Buru (1979-1997); Euskaltzaindiko Batzordeetan ere eskurik izan zuen, Onomastikakoan batez ere, eta pertsona-izenen lehen argitalpen bide-urratzaile haren bidez balio sozial handiko eta luzaroko zeregina bete zuen (1972-2001: *Euskal izendegia*). Oinarri horren gain egin da, azkenik, *Euskal izendegia*. *Ponte-izendegia* deritzan argitalpena, Satrustegiren "Pertsona izenen historia" izenburua duen lanarekin datorena (Gorrotxategi/Salaberri eta Batzorde akademikoa, 2001).

Herri-Erakundeetan hizkuntzarekiko politika birbideratu zenean, Eusko Gobernuak Euskararen Aholku Batzordeko kidea izan zen (1988-1993), Nafarroan, berriz, Kultura Aholku Batzordean jardun zuen (1990a arte) eta baita Euskararen Legearen garapenerakoan ere. Hainbat Unibertsitatek eman zion hitza, ikastaro, mintegi eta hitzaldietan (EHU, Deustua, Iruñeko CSET, Waseda-Japonia, Sta. Fe-Argentina, Erevan-Armenia), eta Nafarroako euskal mende-laurdena aurkeztera deitu zuten UEutik (2001). Azken urteetan jaso ditu bere aitorten sozial eta akademikoak: Bizkaiko Ikastolen Elkartearena (2001: toponimia eta onomastikako lanengatik), "Larreko Saria" eman zion Euskalerra Irratiak, "Manuel Irujo Saria" Lizarran (2002), eta EIZE itzultzaile elkarteak ohorezko bazkide izendatu zuen urte berean.

Horra, bada, antzeko bi ibilera intelektual eta kulturtzale, elkarrekin alderatuta gero beren obretan zehar zehazkiago marraztu nahi ditugunak.

Antzeko soslaia ezberdinak

Jimeno Jurío eta Satrustegi Zubeldia jaunek antzeko soslaia izan dute, aurreko lerroetan ikusi ahal izan dugunez, eta jakite-alor berak ere ukitu dituzte (etnografia eta euskara bereziki).

Nafarroako testuinguru sozial edo harrobi kultural ezberdinetan eta aski kontrajarrietatik sortu zitzaizkigun bi nafarroak, bata Erdialdean eta bestea Mendialdean. Arruazuko herria baserri-landa guztiz irekia izan da gaur arte; Artaxoa, aitzitik, betidanik hiri-moldeko herri-arte, bere hiritasunean (muru-barnean bilduta), biztanlerian eta herri- eta eliz erakunde ongi gorpuztuetan mamitua (kalonjeen priorgoa, eliz kabildoa). Artaxoa elebidunak XVIII.ean edo galdu zuen erabat euskara eta geroztik ez du honek bertan burua altxa; alderantziz, Arruazuk eutsi egin ahal izan dio gaur arte bere euskaltasun betikoari.

Ondorioz, Satrustegi euskaldun "jaino" zen bitartean, eta laster elebidun bilakatu, Jimeno sendiz eta herriz erdaldun elebakarra zen. Hori horrela, Artaxoako (1969...) eta Nafarroako euskal leku-izenekin egin zuen topo, lurralde horretako

kultur erro zaharrak non zeuzkan oartzeko moduan. Jimeno Jurío ez zuen lortu euskara mintzatuaz guztiz jabetzea, baina amestutako euskara sasi-trabatua hurrengo belaunean segurtatu ahal izan du bere sendian. Nahiz eta idatzi ere ez duen euskaraz idatzi, Nafarroako lurraekin batera bertan txertatutako hizkuntza isildua ere maitatzen ikasi zuenetik, Nafarroako hizkuntz oroimen toponomastikoa egun-argitan jartzen ahalegindu da, maisu-lan erraldoia burutuz berak eta bere inguruan gidatu dituen taldeek. Horregatik izendatu zuen Euskaltzaindiak Ohorezko Euskaltzain Jimeno Jurío.

Hizkuntzarenaren ondoan, deskribapen etnografikoa segurtatu dute Jimeno Jurío zein Satrustegi Zubeldiak, hiltzeaz ageri zen gizarte zaharreko lekukoak bilduz. Neurri batean elkar osatu dutela esan daiteke: Satrustegik Mendialdeari arreta gehiago jarri (Luzaide, Urdiain), eta Jimenok berezikiago Erdialde eta Erriberako langai etnografikoak jasoz (Kortes, Tutera, Tafalla, Lizarra).

Bien jarduera intelektuala ogibidezko iker-erakunderen babesik gabea izan da, Unibertsitate edo Ikertegi jakin batean profesiozko lan-posturik gabea esan nahi dut. Hala ere, biak gotorki atxiki zaizkio iker-lanari, beren barneko grinari jarraiki. Jimeno Jurío hamabosten bat urte egin zituen apaizgoa eta kultur lana elkartzuz; Satrustegik, berriz, bizitza osoa, eta horren ondorioz Elizak eman zion babes ekonomiko segurtatua, nahiz eta bestalde, bistan da, eginbehar kulturala neke pertsonalik gabea ez zen izan. Jimeno Jurío, Elizatik sekularitzean, liburuzain ardura hartu ahal izan zuen ogibide bezala (1970-1983), eta hori uztean larriago zelarik, ordura arte egin eta irabazitako lanaren sona onak eta proiektu berriek lagundu zioten egoerari gaina hartzen. Dena ere, dedikazio pertsonal handiz egindako obra da bona. Eta horretan ez ziren batere aberastu, jakitez, harremanez eta zerbitzutan ez bada.

Baina ez zaie falta izan jakintza-lagunarterik, beren hautapenetan. Alor honetan bi erakunde handi ditugu geure herri-erakundeetatik jaioak, eta sortzetik bertatik eta berariaz Euskal Herri osoko ezagumendua zaindu eta ikertzeko eratuak: Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza. Bietan izan dira Jimeno Jurío eta Satrustegi partaide nabarmenak. Satrustegik Euskaltzaindian jardun du berrogei eta gehiago urtetan (1957, 1963-2003), eta Jimeno Jurío berorren inguruan toponimi eskola sortu duela esango luke batek (1983-2002); Eusko Ikaskuntza izan da Jimenoren beste lantegi maitea, Nafarroan eta Nafarroatik: lehendakari-orde izan zen hemen, eta Erakundearen kalerretan sailatu zen parte hartzen (1985...). Zalantzarik gabe, pasaeira politikoaren garaian inork baino hobeki lagundu zuen Eusko Ikaskuntzari ekarpen nafar berritu bat ematen.

Izan ere, Nafarroak, kalitatez eta kopuruz, toki nagusia izan du bi idazle hauen lanetan. Nafarrak ziren, eta Nafarroatik eta Nafarroaz hitz egin digute batik batik. Euskal nafartasun hau behar genuen, eta etorkizunerako funtsezko obra utzi digute, iragana eta oraina elkarrekin lotuz.

Frankismoaren garaian, Foru Aldundiak abian jarritako baliozko ekimenetan –aldizkariak, bestelako argitalpenak– esku zuzena izan zuten, batez ere Satrustegik, eta kasik hogeita hamar urteko leialtasuna izan da arruazuarraren hori, idatz-lankidetzan ez ezik Aldundiko Kontseiluetan ere presente egonez. Jimenok 1968an Artaxoari buruzko agiritegia Aldundiarekin argitaratu zuenetik, 45 liburuxka idatzi zituen haren *Navarra. Temas de Cultura Popular* sailerako, hamar-hamaika urtetan: benetakako altxorra (1969-1979). Baina batez ere Foru Aldundiaren eskez landu eta elkarlanean gidatutako aipatu obra paregabea da erakunde-lankidetzaren honen erakuskaririk onena, *Toponimia y Cartografía de Navarra-Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, bere 59 aleekin (1992-1999).

Bakoitzak bere gisara, Jimenok eta Satrustegik Nafarroako kulturaren eta euskarazko ondarearen lekukotasuna arrunt goiti eraman dute, gerra-aurreko belaun handiari jarraitasuna emanez ("Los Eúskaros" haiengandik gerraraino iritsi zirenei, alegia: Iturralde eta Suit, Campión, Altadill...). Hori, Nafarroako etxetik bertatik egin izana eskertzekoa da zinez. Euskararen munduan nabaria izan da Satrustegiren belaun-zeregina, eta Jimeno azken urteetan benetako sinbolo bilakatu zen, euskal nafartasun honen aldetik, gizartean oro har eta lagunarte akademiakoagoetan.

Horiek horrela, biek, Jimenok eta Satrustegik, betekizun herritarragorik ere izan dute: herrietan, herriz herri, herri xumearen artean ehunka mintzaldi eman dituzte, tokian tokiko albiste, historia eta istorioak azalduz sarritan, eta Nafarroa eta Euskal Herri osoko berriak ereinez. Isil arazitako iraganari eta orainaldi ezkutatuari jakitunaren ahots duina eman zieten, inondik ere.

Batez ere Nafarroan egindako lanaren ondorioz, Euskal Herri osoan irabazi zuten izen ona ongi aitortua izan da azken hamarkadan, bereziki Jimenoren kasuan (aipatu ditugun omenaldiak), eta beste gisa batean Satrustegirenean (hitzalditarako zenbat dei jaso duen beste Herrialdeetatik ere!). Azken orduan ere, "Nafarroa eta euskara" deritzan *Jakin*-en zenbakian, adibidez, eman berri digu honek "Euskara Nafarroan atzo eta gaur" idazlana. Nafarroako kultur ondarea guztiontzat daukagunok esker onez begiratu izan digu bi gizon hauen ekarpena.

Burututakoa bertatik bertara behatuz bakarrik ohartu ahal izango gara bion obraren tamaina eta esanahiaz.

Jimeno Jurío-ren obra

la berrogei urteko ibilera izan du Jimeno Jurío-ren idazketa-lan argitaratu eta katalogatuak (1963-2002), baina, espero daitekeenez, erritmo ezberdinak izan ditu guzti horren ekoizpenak, eta ukitu dituen alorrak gehienetan ez dira denak batera garatu. Bestalde, bi argitalpen-molde bereizi behar dira, liburuen bidezkoa eta aldizkarietan eman eta sakabanatua; biak izan dira garrantzizkoak. Azkenik, idazlanek ere ez dute beti balio eta maila bera gorde, hedapen-lan xume ugariaren ondoan eskakizun handiko ikerlanak ere egin ditu; jeneralean, azken molde honetakoak izan dira liburuak.

Jimeno Jurío 28 libururen egilea da; horietako sei, beste lankideren batekin elkar-tuta burutu zituen. *Toponimia eta mapagintza*-rena kontutan hartzeke, kalkulatu ahal izan dugunez, autore bakar bezala ageri den liburuetan 6.000 orrialdetik gora argitara zuen, elkarlaneko beste bostetakoa gehitu gabe. Hortaz, materialki ere lan gaitza izan da Jimeno Juríorena.

Berak zuzendaritza eraman gabeko talde-lanetan edo inoren liburuetan sarritan hartu zuen parte Jimenok: 47 horrelako zenbatu ahal izan dizkiogu. Jeneralean, idazlan laburrak, eta inoiz edo bestetan liburu-hitzaurreak.

Liburuetara iritsi gabe ("liburu" kontzeptua, gutxienez 50 orrialde dituzten argitalpenei egotzi ohi zaie), *Navarra. Temas de Cultura Popular* sailean agertutako Jimenoren 45 liburuxka daude. Hogeita hamar orrialdeko testu trinkoa jaso ohi zen bakoitzean: hortaz, egin kontu hauek bakarrik orotara 1.350 orrialdeko testu-masa direla. Batez ere 1969tik 1974a arteko lana izan zen hau, urtero liburuxka-multzo ederra emanez (1971n, adibidez, 9 ale).

Zailagoa da aldizkarietako osorik bildu eta kalkuluak zehazki egitea, baina aipa dezagun bederen presente egon zen aldizkarien zerrenda, lankidetzako urte nagusienak ere gogoraraziz eta bakoitzean utzitako lan-kopurua zenbatuz: *Ruta Jacobea* (1963-1965: 6 idazlan), *El Miliario* (1966: 2), *Príncipe de Viana* (1965-1997: 23), *Fontes Linguae Vasconum* (1969-1998: 26), *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* (1970-1997: 16), *Punto y Hora* (1977-1978: emanaldi ugari, 17 gai ezberdinekin), *Jakin* (1978: 1), *Dantzariak* (1979-1994: 7), *Herria 2000 Eliza* (1982: 1), *Langaia* (1982-1984: 2), *RIEV* (1983-1997: 3), *Euskera* (1985-1988: 4), *Cuadernos de Sección* (El: Hizkuntza, Zuzenbidea, Historia, Folklore. 1985-1998: 5), *Concejo* (1986: 1), *Anuario de Eusko Folklore* (1986-1987: 1), *Narria* (1987: 1), *Noticias del Agua* (1987: 1), *Ohitura* (1987: 1), *Instituto Gerónimo de Uztáriz* (1988: 1), *Cuadernos de Cultura Tafallesa* (1991: 1), *La Ondarra* (1995: 1).

Ikus daitekeenez, 21 dira aldizkari hauek, baina lankidetzako oso ezberdinekin ageri dira. Nafarroako aldizkari zientifiko ofizialak dira nabariki nagusi: *Fontes* dator lehenengo, 26 idazlanekin, *Príncipe de Viana* hurrena 23rekin, eta *Cuadernos de Etnografía* 16rekin. Hauetako lana 1965etik 1998a arte luzatu zuen Jimenok. Ohartzekoa da bi urte giltzarritan (1977-1978) *Punto y Hora de Euskal Herria* astero-koan egin zuen hedapen-eginahala, 80tik gora lan labor argitara emanez (gero, partez behinik behin, liburutan ere jasoa). Berezilarientzako ikerlanen ondoan, bada, herritar xumeari ere eskaini nahi izan zion bere ekarria, Autonomiaren aldeko ahaleginak (1917-1919), Nafarroako lurretako borroka soziala, II. Errepublika eta gerrateko gertaerak gogoraraziz.

Izan ere, alor ezberdinak aztertzea izan baita Jimeno Jurío-ren grina: historia eta etnografia, tokian tokiko ohiturak, pertsonaia handiak bezala herri apala, eliza, ermita eta ospitaleak, bideak eta herriak, hiriak eta landa-herriak, gaztelania eta euskara, geografia eta artea, etab. Historian *iturriak* bilatzea maite izan du, batzuetan testuen edizioak eginez: Artaxoa (1968), Irantzu (1970), Tafalla (2000), etab.

Historiako Aro ezberdinak ukitu ditu: Antzinatea bere erromatarren bide (1966) eta *ara*-ekin (1975), eta Erdi Aroa zer esanik ez, Nafarroako Erreinuaren sorrera-urteak arakaturik (Orreaga: 1969, 1973, 1974), Santiago-Bideak begiraturik (1963-1965, 1969, 1971, 1973), Bide horretako zerbitzuak ikertuz (ospitale, ermita, ostatu, etab.: 1965, 1971, 1993, 1995, 1997), garaiko gizarte nafarra aurkeztuz (Zangoza, Iruñeko Nafarrera, Erriberri, Artaxoa, Tafalla, edo herri hustuak eta merkatuak: 1966, 1970, 1971, 1976, 1986), Koroaren presentzia erakutsiz (Karlo III.a, Jauregiak: 1971), nafar erlijiotasunaren adierazpen instituzionalak ikertuz (parrokiak: Asiain, Izkue; monasterioak: Irantzu, La Oliva, Aralar, Lergako San Gines: 1969, 1970, 1975, 1982, 1986). Gaiok batzuetan Aro Modernora ere luzatzen dira; maite du berritasun kulturalak erakustea: inprimategiaren Nafarroako iragana (1974), edo medikuntzako albistekak (1985). Frankismoa bukatzean, Aro Garaikidera etorriko da: Nafarroako histori sintesi berrietan parte hartuko du (1980-1982), eta Nafarroa Euskal Herri osoarekin lotzen duten une eta arazo larrien historia idatziko (1977...).

Historiaren funtsarekin zerikusia duten bi alorretan saiatu zen luzaz Jimeno Jurío: egunerokotasunaren historia ere erakuts dezakeen *etnografian* eta hizkuntz iraganaren lekuko iraukerak berdingabea den *toponimian*. Landa-lana oso maite zuen Jimenok, jendearekin harreman beroan, arrunt gogoko zuen lana eta aisia, sendia eta herria, mundu hau eta bestea, dena elkar-trabatzeko duten pentsamolde eta ohiturak biltzea. Lan etnografikoak ugari ageri dira lanen zerrendan: Bideko legendak (1969), Artaxoa, Altsasu, Zentroniko, Tafalla eta Elo etnografikoak (1970, 1974, 1975, 1989, 1996), Eguberri, Aste Santu, udaberri eta lau urtarotako folklorea (1971, 1973, 1976), neguko jai-ospakizunez liburu oso bat (1988), goiz-kantak (1973), inauterien historia

(1979, 1980), Lizarraldeko Gorputzi Jaia (1987), Erriberako dantzak (1974, 1982, 1987, 1990, 1993), sineskizunak (1976), pertsonaia herritarrek ahaztu gabe (1975). Ikusten da, bada, 1970.etan jarri zuela arreta berezia lan etnografiko hauetan. Horren ostean, ondoko urteetan etorri zen, bere uholde handian behintzat, toponimia.

Zalantzarik gabe, 1969ko "El euskera en la toponimia de Artajona" hura aurkikuntza suspergarri gertatu zitzaion ikertzaileari, zenbait urte geroago bereziki arakatu zuen aztergairako (1987an berriro azpimarratu zuen Artaxoaren euskaltasun historikoa, bertsolariak eta aipatuz). Non, eta bere erdal sorterrian, nola zegoen lurretan hainbeste euskara? Toponimiaren honek bere bakarrean eta taldean egindako lan gotorrek ekarri zituen: Iruñerria (1984, 1985, 1994), Zendea ezberdinak (Zizur, 1986; Galar, 1987; Oltza, 1989, Antsoain, 1992), Elortzibarra (1990), Burlata (1991), Lizarra (1998), etab.

Lekuari lotutako izendegi xehearekin batera, Nafarroako herrien izen nagusiak eta euskal izendegiak jasandako aldakuntza gutxi-asko bortxatuek ere arduratu zuten Jimeno Jurío: santu-izenak leku-izen bilakatu zirenekoa eta, alderantziz, ermiten euskal izenena (1985), euskarazko eta erromantzezko herri-izen nafarrak (1986), edo *-ain* atzizkidunak (1986), zenbait herri-izen jakini buruzko txostenak (Lizarra eta Atarrabia, 1988; Arqueta/Los Arcos, 1990, 1994). Interesgarriak izan dira, eta gida-eginkizuna izan dute, gainera, leku-izendegi inkestarako oharrek (1988) edo alor honetan abian ziren edo burututako lanen berriemateek (1991).

Horrekin guztiarekin batera, euskararen presentzia toponimikotik harago joan nahi izan du Jimenoren ikerkuntzak: hizkuntzaren erabilpen historiko mintzatuak ere atzeman nahi izan ditu, herri, eskualde eta Nafarroa osoan. Ahalegin horren emaitza eta sintesiak izan ziren, alde batetik, Iruñeri buruzko obra, *Historia de Pamplona y de sus lenguas* (1995), eta, bestetik, *Navarra. Historia del Euskera* (1997). Biak ere aurreko urteetakoen fruitu zirenak, izan ere hainbat eskualde eta herri aztertutik baitzeuzkan lehendik: Artaxoa (1969, 1987), Urraul Goiti (1991), Galipentzu, Aibar eta Agoitz (1992), Zaraitzu (1993), Allin Ibarra (1994), Eguesibarra (1996) eta berezikiago behin eta berriz Iruñea bera (1994, 1995, 1996). Euskararekin loturiko zenbait pertsonaia ere gogoan izan du: Juan de Amendux, c. 1540-1580 (1996), Juan de Beriain, 1566-1633 (1988), Aita Jose Moret (1993).

Ez da, noski, agortzen hor Jimeno Jurío-ren obra, baina iradokitzen dute esanda-koek haren interes nagusienak nondik nora joan ziren. Obra osoak ez du balio bera, eta ez dira parekatu behar hedapen-gogoz egindako zenbait artikulua eta aldizkari edo liburu jasoagoetarako idatzitakoa.

Zein berritasun ekarri digu autoreak bere obran, ikertutakoa erabat berria duela-ko nahiz ikuspuntu berriren batetik begiratu delako? Lehen multzo horretan jarri beharko genuke Nafarroako toponimian egindako ikerkuntza, eta horren paretsuan, oro har, Herrialde horretako euskararen historia sozio-geografikoari eskaini diona. Ondoren datoz, Erreinu Zaharreko historia orokorrari eta gai monografiko batzuei eskainitakoak (Orreaga, Amaiur, etab.). Nafarroa bere gizon-emakumeekin maite izan du Jimenok, eta bere ibilera etnografikoetan jaso zizkigun hainbat izengabeko jenderen bizitza eta berauen herriak, banan-banan (tokiko historia eta izaera); agian, batez ere lekukotasunaren balioak ditu sail etnografikoan bildutakoak, eta bilduma hain zabala izaki, inork gutxiak erakutsi ezake Nafarroan halako aberastasunik.

Euskaraz ez du idatzi, baina, zer esanik ez, hizkuntza honen alde egindakoak miresmena eta esker ona merezi ditu, eta hau esatean hizkuntza baldintza pertsonal bertsuetan jardundako beste nafar bat gogoratuko nuke: Arturo Campián. Azken buruan, Nafarroako hizkuntzekiko oroimen berri batez jantzi gaitu Jimeno Juríok.

Satrustegi-ren obra

Esкура ditudan albisteen arabera, Jose Mari Satrustegi eta Jimeno Jurío data oso hurbiletan hasi ziren idazten: Satrustegi (1956: *Boletín RSBAP*), Jimeno (1963: *Ruta Jacobea*). Testuinguru kultural berean, hortaz.

Lau hamarkada ongi pasatuak bete ditu Satrustegik bere kultur lanean (1955-2003); gehienbat euskaraz eta hainbatetan erdaraz ere. Ikusi dugu gazterik heldu zela kultur Erakundeetan lekua irabaztera; bestalde, berehala aitortu zitzaion euskal munduan Nafarroaren ordezkartza morala ere (1957, 1963, 1969...). Geroztik, testuinguru horretan beraietan zegozkion eginbeharrak betetzen saiatu zen, eta bere baitako zaletasunek eskatzen zizkioten ekimen eta ikerlanak garatzen (euskalaritza, etnografia, literatura). Etenik gabe idatzi zuen, urte guztietan eman zuen argitara zer-bait (1976tik aitzina bi hilabetetik behin ikerlanen bat).

Oro har, nabaria da nola erakunde-antolamenduetako erantzukizunen ardura eman ohi zitzaion, hautatuta (Euskaltzaindia) edo izendaturik (Foru Aldundia). Bestalde, saiatu zen harreman sozio-kulturalak zaintzen eta komunitate zientifikoan ezaupideak egiten eta adiskidetasunak zaintzen.

Liburu-liburuxkatan 22 obra zenbatu dizkiogu Satrustegiri: horietako bost gaztelaniaz daude (kasu batean bere jatorrizko euskarazkotik itzulita); gainerakoak, euskaraz. Liburuok ez dira beti ikerlanak izan, eta badaude literatur idazkiak direnak ere (*Ekaitza* eleberria, esaterako: 1975), edo haurrentzako pentsatuak (esateko, *Ipui miresgarriak*, 1980; *Axelko eta Otsoko*, 1983). Oro har, liburuak ez dira argitalpen mar-dulak izan, eta badira batzuk dibulgazio-asmoa izan dutenak.

Argitalpen hauetan Satrustegiren beste interes bat ere ageri da, baliozko agiri edo idazki zahar argitaragabeak berreskuratzearena alegia. Horrela egin zuen Bordel bertsolariaren liburua paratu zuenean (1965), eta kezka bera ageri da ondoko urtee-tako lan solte askotan: *Tapia Perurena* (1985), *Olasagarre* (1989), edo testu zaharra-goekin: 1619ko bertsoak (1960), nexka gertariaren erromantzea (1972), Juan de Amendux-en erosta (1975), Burundako Ordenantzak (1982), Goizuetako Udalarenak (1996), *Olaibarko bertso paperak* (2000). Zaletasun honek jota, *Euskal testu zaharrak* deritzan proiektua aipatu behar da batik bat hemen: lehen liburuki aberatsa atera zion Euskaltzaindiak, hain zuzen izenburu horrekintxe (1987: 364 or.).

Aldizkarietako Satrustegirena ere, Jimenoren kasuan bezala, bi mailatakoa izan da: hedapen-lanari zegokiona (*Zeruko Argia*, *Diario de Navarra*: hiru urtez asteroko lan bat; edo *Príncipe de Viana*-ren euskal orrian, adibidez) eta ikerkuntzako aldizkariena. Azken hauetara gatozela, zerrenda zabala osatzen dute Satrustegiren lanen bat jaso zutenek; hamabosten bat aldizkari, behintzat, kontatu ditugu, eta dagoeneko zenbatu dizkiogun lanak 148 dira (ez, noski, denak, baina bai aldizkari berezitetako gehienak bederen): *Euskera* da lehena, 45 lanekin gutxienez (1961-2000), *Fontes Linguae Vasconum* 31 (1969-1998), *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 21 (1969-1992), *Egan* 18 (1983-2000), *Boletín RSBAP* 10 (1956-1992), *ASJU* 8 (1977-1993), *Príncipe de Viana* 5 (1960-1993), *Jakin* 5 (1972-2003), *RIEV* 2 (1984-1986), *Senez* 2 (1994-1996), *Oihenart* 1 (1985), eta begiratu ezin izan ditugunak: *Luzaide*, *Gaceta Médica de Bilbao*, etab. Aldizkari berezitetako artikulugintza honen albisterik zabalenak Sancho el Sabio Fundazioko eta KMren katalogoetan topa daitezke: lehenengoan, adibidez, 199 idazlan ezberdin ageri dira Satrustegirenak, eta segurua da zenbait jaso gabe dagoela oraindik.

Aldizkari bakoitzaren nortasunak eta berariazko gai-alorrak iradokitzen digute zer-taz ari zen Satrustegi haien orrialdeetan, eta gehienetan baita egin behar zuen hiz-

kuntza hautapena zein izan zitekeen. *Euskera* edo *Jakin*-en euskaraz idatzi zuen, noski, eta *Cuadernos de Etnología*-n (1996), e. b., gaztelaniaz, nahiz eta ezagutzen dugun azken honetan euskaraz idatzitako lan bat ere (1996).

Euskera aldizkariaren orrialdeetan testu anitz bada Satrustegik Akademiako Idazkari gisara emandakoa. Ageri denez, horrelakoak gogoan hartu gabe, 45 lan zenbata ahal izan dizkiogu aldizkari ofizial horretan, lehenengoa 1961ean eman zuenetik heriotza arte. Bistan da, denak ere euskararen inguruko gaietz oratuak eta, berezikiago, kide zen Euskaltzaindiko Batzordeetako azterkizunak landuz: bertsolariak, hiztegi herritarra, ziza eta ahaide eta pertsona-izenak, dialektologia (zenbait herritako euskara: Luzaide, Arakil), kultur pertsonaiak. *ASJU* aldizkarian ere euskara izan zuen aztergaitzat, noski, testu zahar argitaragabeak kaleratuz (1977-1993), edo herriren bateko euskara aurkeztuz (Zugarramurdi, Luzaide).

Gai etnografikoak, ia osorik, Iruñeko aldizkari handietan eman zituen, *Príncipe de Viana*-n eta ugariago, aipatutako *Cuadernos*-en. Erabilitako gaiak hauek izan ziren: bertsoak (1619), mugaldeko historia erlijiosoa (Luzaide), Urdiaingo deskribapen etnografikoa, Von Schack Kondearen bidaia (1858), Manezaundiren biografia kristau-aurreko tradizioak, estelak, betidaniko teknologiak, medikuntza herritarra, erritoak, etab.

Donostiako bi aldizkaritan utzi du Satrustegik bere lan-multzo bat, *Boletín de la RSBAP*-en eta *Egan*-en. Lehen urratsak ematen ari zelarik aurkitu zuen aterpea lehenengo horretan (1956-1967), eta buletinean emandako hamar lanen artean daude Bordelen biografia, 1564eko erosta, Luzaideri buruzko oharra, etab. *Egan*-era literaturari buruzkoak bidali zituen: azken urteetakoak gogoratzu aipagarriak dira ipuinei dagozkienak (1985, 1995) eta Miranderen gutunak (1984).

Satrustegiren idazle-bidean gogoraztekoa da, iragan urrunagokoen azterketa biografikoen ondoan (Pedro Atondo exorzista, 1984; Juan de Amendux, 1975; Esteban Adoain, 1980; Pedro Agramont, 1996; J. Frantzisko Aizkibel, 1979, 1998), nolako arreta jarri zuen hilberrien albisteak ematen; jeneralean, lan laburrak dira baina sarritan ia bakarrak ere bai beroriei buruz. Honelakoan artean eman behar ditugu ondokoen berriemateok: Juan Goikoetxea Zabalo (1973), Pedro Diez de Ultzurrun apaiza (1977), Aingeru Irigarai (1983, 1999), Norbert Tauer (1983), Aita Damaso Intzakoa (1986), Bonaventura Oieregikoa (1986), Jose Estornes Lasa (1987), Jose Agerre (1989), Migel J. Urmeneta (1988, 1989), Martzelino Garde (1990), Pedro Diez de Ultzurrun sendagilea (1994), Jose Maria Azpiroz (1998), Bernardo Estornes Lasa (1999), Alexander Tapia (2000). Ikusten denez, ia denak ere idazle nafarrak eta gehienak Euskaltzaindiarekin zerikusirik zutenak. Jakitun ezagun batzuen berriemaile ere izan zen Satrustegi gure Akademian, hala nola: Nils M. Holmer (1994), Julio Caro Baroja (1995). Bestalde, K. Mitxelenaren paperetatik *Fontes*-en jasotakoak baliozkoak izanen dira euskalartzaren historia osatzeko.

Bizien arteko harremanetan aipa ditzagun bi euskaltzain berriren sarrera-hitzaldiei egindako harrera-agurra eta erantzuna: Henrike Knörrena (1978) eta Frantzisko Ondarrarena (1981).



Jose Mari Satrustegi Zubeldia

Aipatutako datuetatik ondorioz ere atera daiteke: Satrustegi batez ere euskararen *corpus*-az arduratu zen, historikoaz eta oraingoaz, ia beti testuen eta bildutakoaren barne-analisi filologikoak egiten ibili gabe, gehiago aztergaiak salbatu eta ikertzaileen eskuera jartzen. Inoiz lekuko zaharren artean pitxi preziaturik ere aurkeztu zigan. Ugariak izan dira etno-antropologiatik egin digun ekarria, eta ematen du horixe izan zela bereagotzat zeukan alorra. Inoiz testu literariorik ere ekoizten saiatu zen, baina badirudi ez dela hori izango utzi digun herentziarik estimatuena. Euskalgintzako aldizkari eta Erakundeetan betetako zerbitzuek hainbat ordu lapurtu zioten, betiere iker-tzaile-komunitatearen mesedetan, eta gure esker ona ongi irabazita du Satrustegik.

Azken begiratua

Aztertu ditugun bi kasu intelektual hauetan, nabaria da ekoiztakoaren konplexutasuna, eta bi obra osoekiko juzku kritikoa ez dago normahiren esku; kritikariek alor ezberdinetako adituak izan beharko lukete. Bestalde, idazle lan burutu berria premia-zko perspektiba historikoan behatu ahal izateko denbora beharko da oraindik, azken buruan bizi izan duten garaiko historia kulturalaren barruan begiratu beharko baitira bien lanak (1960-2000), testuinguruko baldintza eta eskuera izandako baliabideak gogoan ditugula, ukitutako alorretan lehendik genekarrena eta ondoren jaiotzen ari dena, biak, aintzakotzat hartuta. Bego, bada, bere sasoirako analisi kritikoa hori.

Nafarroako XX. mendeko bigarren erdi-aldiko kulturaren ezagumendua nahitaez ageri zaigu lotuta bi ikertzaile hauen historia pertsonalari, eta Jimeno-ren kasuan eza-gutza-berritasun zabalago batekin, esango nuke. Satrustegik, berriz, garai zail eta hobeagoetan Nafarroako euskararen bandera bere gaurkotasunean goraki erakutsi du (frankismoan zirrikituak zabalduz, lehen frankismo-ondoko aldakuntzan parte hartuz, geroago premia-zko protesta-hitza esanez).

Bete duten jarduera, luzaro aterpe instituzional eskasekoa izan da, eta sakrifizio pertsonal handikoa. Lehenago batean, Unibertsitate-rik gabe, euskal komunitate zientifikoak bizi izandako egoera bertsuan aritu dira, kasik erretiroa hartzeko ordua iritsi zitzaizen arte. Eta horra paradoxa: azken heldutasun horretantxe zela gidatu ahal izan du Jimenok bere obra-multzorik emankorrena, eta, uste dudanez, iraunkorrena ere.

Zalantzarik gabe, politika arin eta urduriaren aldarreen ondoan, kulturaren iraupen-indarra erakutsi digute bi ikertzaile nafar hauek, eta gerorako itxaropen-harrobi berria sortu eta erakutsi dute Nafarroan. Ez da gutxi.

Lana, parte on batez, oso barreiatuta geratu zaie bie. Aldizkarietan sakabanatutako hori ez da izango dena balio berekoa, baina idazlanen antologia egoki baten edizioa ongi etorriko litzateke gaurko Nafarroa eta Euskal Herri osoari. Justiziazkoa izango litzateke halako bizi-oparia egin diguten José María Jimeno Jurío eta Jose Mari Satrustegi-rekin dugun zorra nolabait kitatzen hasteko.

Joseba Intxausti
K. A. Euskal Fundazioa